



ADIMEN URRITASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI-KALITATEA

DIMENTSIOA: GIZARTEAN SARTZEA

Hausnarketarako galdera hauek proposatzen dizkizugu... animatzen zara?


Ikertzeko puntuak: zer da gizartean sartzea?

Gizartean sartzea: nire komunitatearen parte izatea. Joan naiteke beste pertsonak joaten diren nire auzoko, herri edo hiriko tokietara, hala nola, jatetxeak eta tabernak, saltoki-guneak, zinemak, dantzalekuak, parkeak edo dendak.

Beste pertsonak bezala, jarduera hauetan hartu ahal dut parte: herriko jaietan, ekitaldi edo txangoetan. Beste pertsonen laguntza daukat. Talde, auzo edota nire komunitatearen parte sentitzen naiz. Arazorik gabe mugi naiteke normalean joaten naizen tokietatik. Sentitzen dut jendeak nik egindako gauzak balioztatzen dituela eta kontutan hartzen nautela.

Gizartean nola sartzten naizen aztertzeko, hau hartzen dut kontutan:

- Taldearen parte sentitzen naiz.
- Gustuko ekintzetan hartu ahal dut parte.
- Oztopo edo trabarik gabeko toki desberdinetara joan naiteke. Adibidez, arrapala, igogailu edo bainugela zabalak daude.
- Garraiobideak erabil ditzaket: metroa, trena, autobusa edo tranbia.
- Laguntza izaten dut behar dudanean.



Nire tokian jartzeko galderak: zer pentsatu eta sentitzen dugu adimen urritasuna dugun pertsonok?

“Saltoki-gunera erosketak egitera joatea gustuko dut. Lehen txartelaz erosteko sinatu behar zen. Nik oso sinadura txarra daukat eta oso arraroa banintz bezala begiratzen ninduten. Orain kodea besterik ez dut markatu behar eta oso gustura sentitzen naiz. Inork ez nau begiratzen. Beste bat naiz”.



“Gu lagundu nahi gaituen pertsona bati eskatzen diogu pazientzia izatea, arreta mantentzea, presta dadila eta pertsona ona izatea”.

“Ni oso independentea naiz, lar babestuta egoteak itotzen nau”.

“Behin adimen urritasuna zuten pertsona talde batekin sartu ginen kafetegi batean eta ez ziguten jaramonik egin. Bigarrenez bueltatu ginenean berdin gertatu zen. Ez gara inoiz berriro bueltatu. Txarto baino okerrago sentitu ginen”.

Hausnarketarako galderak: Zer uste duzu? Zer sentitzen duzu? zerk arduratuko zintuzke zure etorkizunari dagokionez?

Egoera batzuk haztera laguntzen gaituzte baita eskubide osoko hiritarrak bezala gizartearen parte garela sentitzera ere. Imaginatu zure eguneroko bizitzan baztertua sentiarazi dizuen egoera bat edo norbait horrela sentitu ahal izan dela sentitu duzula. Zer egin ahal duzu egoera hauek ez gertatzeko?



Elkarbanatzeko galderak: zer pentsatzen dute beste pertsonak? Zer sentitzen dute?

Eder, Edorta, Uxue, Ane, Marta eta Silviak, Gorabideko boluntarioek, adimen urritasuna duten pertsonen gizarteratzeari buruz kontaktzen digute:

“Urritasuna duten pertonekin esperientziak elkarbanatzeak errealitatearen gure ikuspegia zabaltzera laguntzen gaitu, begietatik bendak kentzera... orain kaletik zoazenean, konturatzen zara zein zaila den batzuetan zenbait tokietara sartzea, adibidez. Ohartzen zara zenbateko ahalegina egin behar duten beste batzuentzako oso errazak diren gauzak egiteko, gainditzearen balioa”.

“Ikusten baduzu norbaiti zailtasunekin beste alde batera begira dezakezu eta aurrera jo edo geldi zaitezke eta lagundu; adimen urritasuna duten pertsonak laguntzen digute aniztasunean elkarrekin bizi izaten eta gozatzen ikasten ere”.



“Pertsonon arteko harremanen normalizazioa da gizarteratzearen gakoa. Eta horretarako neska-mutilak txiki-txikitatik hezi behar dira”.

Zeure ondorioak:

A large rectangular area with a green border and rounded corners, containing horizontal dotted lines for writing.